

OLERKIAK

SANTA TERESAREN OLERKIAK
Luis Baraiazarrak itzuliak

18. CRUZ, DESCANSO SABROSO...

*Cruz, descanso sabroso de mi vida
vos seáis la bienvenida.*

Oh bandera, en cuyo amparo
el más flaco será fuerte,
oh vida de nuestra muerte,
qué bien la has resucitado;
al león has amansado,
pues por ti perdió la vida:
vos seáis la bienvenida.

Quien no os ama está cautivo
y ajeno de libertad;
quien a vos quiere allegar
no tendrá en nada desvío.
Oh dichoso poderío,
donde el mal no halla cabida,
vos seáis la bienvenida.

Vos fuisteis la libertad
de nuestro gran cautiverio;
por vos se reparó mi mal
con tan costoso remedio;
para con Dios fuiste medio
de alegría conseguida:
vos seáis la bienvenida.

19. EN LA CRUZ ESTÁ LA VIDA

*En la cruz está la vida
y el consuelo,
y ella sola es el camino
para el cielo.*

18. GURUTZEA, ATSEDEN EZTIA...

*Oi gurutze, bizi-atseden eztia,
izan zaitez ongi etorria.*

Oi bandera, zure babespean
ahulena izango baita sendo;
oi gure heriotzaren bizitza,
bai piztu duzula ondo!
Otzan bihurtu duzu lehoia,
zugatik galdu zuen bizia,
izan zaitez ongi etorria.

Maite ez zaituena gatibu da
eta askatasun gaberik;
zugana iristea nahi duenak
ez du izango okerbiderik.
Gaitzarentzat tokirik ez duen
ahal dohatsu handia!
Izan zaitez ongi etorria.

Zu izan zinen geure uztarpetik
aske utzi gintuzuna;
zure bidez zen sendatu gaitza,
hainbat kosta zitzaizuna.
Jainkoarentzat zu bitarteko izan
zinen, zu poz-iturria:
izan zaitez ongi etorria.

19. GURUTZEAN DA BIZIA

*Gurutzean da bizia
eta poz betea,
bera da soilik zerura
daraman bidea.*

En la cruz está «el Señor
de cielo y tierra»,
y el gozar de mucha paz,
aunque haya guerra.
Todos los males destierra
en este suelo,
*y ella sola es el camino
para el cielo.*

De la cruz dice la Esposa
a su Querido
que es una «palma preciosa»
donde ha subido,
y su fruto le ha sabido
a Dios del cielo,
*y ella sola es el camino
para el cielo.*

Es una «oliva preciosa»
la santa cruz
que con su aceite nos unta
y nos da luz.
Alma mía, toma la cruz
con gran consuelo,
*que ella sola es el camino
para el cielo.*

Es la cruz el «árbol verde
y deseado»
de la Esposa, que a su sombra
se ha sentado
para gozar de su Amado,
el Rey del cielo,
*y ella sola es el camino
para el cielo.*

Gurutzean dago “Jauna,
zeru-lurrekoa”,
eta gerra bada ere,
bake gozokoa.
Gaitz guztitik gordetzen du
gure lurraldea;
*bera da soilik zerura
daraman bidea.*

Emazteak Senarrari
esaten dio, ba,
gurutzea palmondo lerdena dela,
berbera igo dena;
jainkozkoa duela hark
bere zaporea;
*bera da soilik zerura
daraman bidea.*

Olibondo bikaina da
gurutze santua,
argitzeko, igurzteko
dugun ukendua.
Ene arima, har ezazu
pozik gurutzea;
*bera da soilik zerura
daraman bidea.*

Gurutzea da emazteak
nahi duen zuhaitza,
haren itzalean eseri
da eta han datza,
zeruko Jaunaz gozatzen;
Hura du maitea;
*bera da soilik zerura
daraman bidea.*

El alma que a Dios está
 toda rendida,
 y muy de veras del mundo
 desasida,
 la cruz le es «árbol de vida»
 y de consuelo,
*y un camino deleitoso
 para el cielo.*

Después que se puso en cruz
 el Salvador,
 en la cruz está «la gloria
 y el honor»,
 y en el padecer dolor
 vida y consuelo,
*y el camino más seguro
 para el cielo.*

21. A SAN ANDRÉS*

*Si el padecer con amor
 puede dar tan gran deleite,
 ¡qué gozo nos dará el verte!*

¿Qué será cuando veamos
 a la inmensa y suma luz;
 pues de ver Andrés la cruz
 se pudo tanto alegrar?
 ¡Oh, que no puede faltar
 en el padecer deleite!
¡Qué gozo nos dará el verte!

El amor cuando es crecido
 no puede estar sin obrar,
 ni el fuerte sin pelear,
 por amor de su querido.

Jainkoari oso-osoan
emana denari,
mundutik erabat aske
dagon arimari,
“bizi-zuhaitz” txit pozgarri
zaio gurutzea
*eta atseginez beteko
zerura bidea.*

Gurutzean jarri ondoren
Jaun Salbatzailea,
gurutzean dugu “aintza
eta ohorea”,
eta bizi eta poza,
sufritzearena,
*eta zerurako dugun
bide hoberena.*

21. SAN ANDRESI

*Maitasunez sufritzeak
balako atsegina badu,
zer izango Zu ikusteak!*

Zer izango ote da, ba, argi
goren-gorena ikustean,
Andres gurutzea ikusiz
hain alai jarri zenean?
Oi, ez du ez falta izango
atsegirik, sufritzeak!
Zer izango Zu ikusteak!

Maitasuna, handia bada,
ezin egon ekin gabe,
ez sendoa maitearen
alde egin gabe ere.

Con esto le habrá vencido,
y querrá que en todo acierte.
¡Qué gozo nos dará el verte!

Pues todos temen la muerte,
¿cómo te es dulce el morir?
¡Oh, que voy para vivir
en más encumbrada suerte!
¡Oh mi Dios, que con tu muerte
al más flaco hiciste fuerte!
¡Qué gozo nos dará el verte!

¡Oh cruz, madero precioso,
lleno de gran majestad!
Pues siendo de despreciar,
tomaste a Dios por esposo,
a ti vengo muy gozoso,
sin merecer el quererte.
Esmé muy gran gozo el verte.

23. A SANTA CATALINA MARTIR

*¡Oh gran amadora
del Eterno Dios;
estrella luciente,
amparadnos vos!*

Desde tierna edad
tomastes Esposo;
fue tanto el amor,
que no os dio reposo.
Quien es temeroso
no se llegue a vos,
si estima la vida
y el morir por vos.

Honela erakarri eta
nahiko du asmatzea hark
Zer izango Zu ikusteak!

Denak badira haren beldur,
nola duzu poza hiltzean?
Bizitzera noalako,
zorionik gorenean!
Oi Jainko, zure heriotzak
sendo egin ditu ahulena!
Zer egingo Zu ikusteak!

Oi gurutze, zur bikaina,
handitasunez jantzia!
Mespretxagarria izanik,
Jainkoa zaizu jaitsia.
Merezi ez badut ere,
poz-pozik nator zugana.
Gogoko dut zu ikustea.

23. SANTA KATALINA MARTIRIARI

*Jainko Betikoaren
maitale handia;
babestu gaitzazula
zuk, izar argia!*

Gaztetatik zenuen bai
zuk hartu senarra;
ez zizun eman pausarik,
handia zen garra.
Ez du joko zuregana,
beldurtia denak,
bai bizia Jaunagatik
galdu nahi duenak.

Mirad los cobardes
 aquesta doncella,
 que no estima el oro
 ni verse tan bella:
 metida en la guerra
 de persecución,
 para padecer
 con gran corazón.

Más pena le da
 vivir sin su Esposo,
 y así en los tormentos
 hallaba reposo:
 todo le es gozoso,
 querría ya morir,
 pues que con la vida
 no puede vivir.

Las que pretendemos
 gozar de su gozo,
 nunca nos cansemos,
 por hallar reposo.
 ¡Oh engaño engañoso,
 y qué sin amor,
 es querer sanar,
 viviendo el dolor!

28. EN UNA PROFESIÓN

¡Oh qué bien tan sin segundo!
 ¡oh casamiento sagrado!
 Que el Rey de la Majestad,
 haya sido el desposado.

Begira zuek, koldarrok,
neskatila honi,
kasu egin gabe urre nahiz
edertasunari.
Jazarpenezko borrokan
baitago sarturik,
sufritzeko gertu eta
adorez beterik.

Samingarriago zaio
Senarraren falta,
eta oinazetan ere,
badu ezti-tanta.
Guztia zaio atsegin:
hiltzea lehenbizi,
beraren Biziarekin
ezin baita bizi.

Nahi badugu haren poza
guretzat dadila,
ez inoiz ere nekatu
barealdi bila.
Bai dela oker handia,
bai bihotz txepela,
sendatu nahi izatea,
mina bizi dela!

28. PROFESA BATEAN

*Oi, on berdini gabea!
oi, ezkontza sakratua!
Goren-gorengo Erregea
delako gaur ezkondua.*

¡Oh qué venturosa surte,
 os estaba aparejada,
 que os quiere Dios por amada,
 y haos ganado con su muerte!
 En servirle estad muy fuerte,
 pues que lo habéis profesado,
que el Rey de 1a Majestad,
 es ya vuestro desposado.

Ricas joyas os dará
 este Esposo Rey del cielo.
 Daros ha mucho consuelo,
 que nadie os lo quitará.
 Y sobre todo os dará
 un espíritu humillado.
 Es Rey y bien lo podrá,
pues quiere hoy ser desposado.

Mas os dará este Señor
 un amor tan santo y puro,
 que podréis, yo os lo aseguro,
 perder al mundo el temor,
 y al demonio muy mejor,
 porque hoy queda maniatado;
que el Rey de la Majestad,
ha sido hoy el desposado.

29. PARA UNA PROFESIÓN

*Todos los que militáis
 debajo desta bandera,
 ya no durmáis, no durmáis,
 pues que no hay paz en la tierra.*

Oi zein zorion handia
 zen zuretzat ezarria,
 Jaunak maitetzat nahi zaitu,
 hiltzean irabazia!
 Leial zerbitza ezazu;
 hori duzu agindua,
*Goren-gorengo Erregea
 delako gaur ezkontdua.*

Bitxiz zaitu apainduko
 Senar Jainko zerukoak,
 ta poz handiak emango,
 inork ken ezinekoak.
 Batez ere espiritu
 apala dizu sortuko.
 Errege da eta ahal du,
gaur ezkontu nahi izan baitu.

Baina Jaun honek maitasun
 santu garbia emanik,
 –neuk diot– ez duzuela
 beldurra zertan izanik,
 ez munduarenik, ezta
 deabruarenik ere,
 gaur lotua izan baita,
goiko Jauna ezkontzean.

29. PROFESA BATERAKO

*Bandera bonen ondorik
 borrokatzen duzuenok,
 ez egin, ez egin lorik,
 ez baita hemen bakerik.*

Si como capitán fuerte,
 quiso nuestro Dios morir,
 comencémosle a seguir
 pues que le dimos la muerte.
 Oh qué venturosa suerte
 se le siguió desta guerra;
*ya no durmáis, no durmáis,
 pues Dios falta de la tierra.*

Con grande contentamiento
 se ofrece a morir eh cruz,
 por darnos a todos luz
 con su grande sufrimiento.
 ¡Oh, glorioso vencimiento!
 ¡Oh, dichosa aquesta guerra!
*Ya no durmáis, no durmáis,
 pues Dios falta de la tierra.*

No haya ningún cobarde,
 aventuremos la vida,
 pues no hay quien, mejor la guarde
 que el que lada por perdida.
 Pues Jesús es nuestra guía,
 y el premio de aqu esta guerra
*ya no durmáis, no durmáis,
 porque no hay paz en la tierra.*

Ofrezcámonos de veras
 a morir por -Cristo todas,
 y en las celestiales bodas,
 estaremos placenteras.
 Sigamos estas banderas:
 pues Cristo va en delantera,
*no hay que temer, no durmáis,
 pues que no bay paz en la tierra.*

Kapitain sendo antzean,
 Jaunak hil nahi izan bazuen,
 goazen haren lorratzean,
 hiltzera eman baikenuen.
 Bai zorion handia
 borrokatik etorria!
*Ez egin, ez egin lorik,
 Jauna falta baita hemendik.*

Hura badoa pozarren
 hiltzera gurutziltzatuz,
 guri argi egitearren,
 hainbesteko sufrimenduz.
 Oi garaipen aintzatsua!
 Hau bai gudu dohatsua!
*Ez egin, ez egin lorik,
 Jauna falta baita hemendik.*

Ez da behar beldurtirik,
 bizia arriska dezagula,
 inork ez baitu gordetzen
 galdutzat duenak bezala.
 Jesus izanik gidari,
 gerrate honetako sari,
*ez egin, ez egin lorik,
 ez baita hemen bakerik.*

Eskain gaitezen benetan
 hiltzera Kristogatik
 eta zeru-ezteietan
 izango gara poz-pezik.
 Jo bandera hauen ondorik,
 Kristo baitoa aurretik;
*ez beldurtu, ez lokartu,
 ez baita hemen bakerik.*

30. A LA GALA GALA DE LA RELIGIÓN

*Pues que nuestro Esposo
nos quiere en prisión,
a la gala gala
de la Religión.*

¡Oh qué ricas bodas
ordenó Jesús!
Quiérenos a todas,
y danos la luz;
sigamos la Cruz,
con gran perfección:
*a la gala gala
de la Religión.*

Este es el estado
de Dios escogido,
con que del pecado
nos ha defendido.
Hanos prometido
la consolación,
si nos alegramos
en esta prisión.

Darnos ha grandezas
en la eterna gloria,
si por sus riquezas
dejarnos la escoria
que hay en este mundo,
y su perdición,
*a la gala gala
de la Religión.*

30. ERLIJO-BIZITZAKO POZA

*Maiteak nabi gaitun
barruan itxita,
pozik bar dezagun
karmeldar bizitza.*

Oi, zein eztei joriak
Jesusek ezarri!
Denok maitatuz egin
ohi digu Hark argi;
gurutzeari ongi
jarrai diezaiogun:
*pozik bizi dezagun
karmeldar bizitza.*

Hau da Jaunak guretzat
duen biziera,
bekatutik gordetzen
gaituen aukera.
Poza agindu digu
giltzape honetan
alaitzera egiten
bagara benetan.

Gauza handiak emango
aintza betikoan,
ondasun haiengatik
hor utzitakoan
munduaren zarama
eta haren gaitza;
*pozik bizi dezagun
karmeldar bizitza.*

¡Oh qué cautiverio
de gran libertad!
Venturosa vida
para eternidad.
No quiero librar
ya mi corazón.
*A la gala gala
de la Religión.*

Hau bai gatibualdi
libertate handiko!
Bizitza dohatsua,
gainera betiko.
Honezkero ez dut nahi
askatu bihotza,
pozik bizi dezagun
karmeldar bizitza.